

Ireki da Doktorego aurreko fakultateko diru-laguntzak eskatzeko epea 2015-2016 ikasturtean

2015/07/21

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ireki egin du Doktorego aurreko laguntzen deialdia 2015-2016 ikasturterako.

ONURADUNAK

Doktorego programan matrikulatuta edo matrikulatzeko prozesuan dauden ikasleentzat.

ESKAEREN FORMALIZAZIOA

Diru-laguntza hau eskatzeak berekin dakar, ezinbestean, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko 2015-2016 ikasturteari begira irekiko duen doktoretza-aurreko beken deialdira aurkeztea, eta beka horietarako hautespen-prozesuan onartua izatea. Horretarako, interesdunek, dagozkion epeak eta formak aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren aipatu beken deialdirako eskabidea ondu eta aurkeztu beharko dute, eta onartuak izan behar dute beka hori eskuratzeko ebaluazio-prozesuan. Baldintza horiek betetzen ez dituztenak kanpo geratuko dira MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen doktorego-aurreko laguntza-programaren hautespen-prozesutik. Eusko Jaurlaritzako Doktoretza aurreko beken deialdia 2015eko abuztuaren bukaeran edo iraileko hasieran argitaratuko dela jakin izan da. Orain arte eskaerak aurkezteko hilabeteko epea zabaldu dute. Horrela izanda, irailean ere denbora izango da tramiteak egiteko. Dena den, eskatzailearen ardura izango da deialdia noiz irteten den begiratzea eta eskaera bera bideratzea.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

- Fakultateko Idazkaritza akademikoa: 943 71 31 39
- Doktorego Aurreko Laguntzak 2015-2016 ikasturtea.
- 2014-2015ko Eusko Jaurlaritzako doktorego aurreko beka deialdia.

